

Berastegiko iraganari buruzko berriak

Lehenengo lerro hauetan eskerrak eman nahi dizkizuet Pablo Iztuetaren omenaldi honetan parte hartzera gonbidatzeagatik. Izan ere, lan zabala eta oparoa burutu du euskal idazle honek euskal kulturaren arloan.

Oso erratuta ez banago, Paulo Iztueta Berastegikoa da. Herri horri hainbat lan eskaini dizkiot, eduki heterogeneokoak.

Oroitzapen eskasak dituzten urte haietan, Berastegiko inauteriak Kinkua-gesimako igandean eta hurrengo astelehen eta asteartean izaten ziren. Tolosan, egun horiei honela esaten zieten: *Zaldunita* (igandea), *Astelenita* (astelehena), eta *Asteartita* (asteartea); Berastegin berriz, *Zalduniote*, *Astele- niote* eta *Astearteñota*. Inauterietako *Zalduniote* edo igandean, gaur egun ere orijinala izaten jarraitzen duen zerbait egiten zen –lehen aldian ari naiz–, are gehiago gure egunetan. *Zaldunioten* ez zegoen maskara ez mozorrorik, txan- txorik (galduz doan ahotsa) ezta mozorroturik ere. Zuten portaeraren iturria, herrian Elizak eta estamentu zibilak urteetan zehar izandako elkar ulertzean dago. Antzeko zerbaitez hitz egin zidan orain urteak Mateo Irachetak, Puente la Reinako parrokia bateko kanpajoleak.

Jai giroko zertzelada batetik beste batera, Inauteritik San Juan Bautista santu aitzindariaren omenez egiten den ospakizunera. Jaiegun horren hasiera kanpaien errepika alai eta luzeak iragartzen zuen parrokiako talaia- tik. Arratsaldeko hiruretan hasten zen, eguneroko otoitz egiteko deiaren edo Abemarien kanpai-hots geldoaren ondoren, kaletik etxera joateko ordua zela jakinarazten zuena.

Baina San Juan Bautista bezpera da. Udako solstizioa da, egun argitsua, eta natura bere edertasun osoan dago: San Juanek esku batean sua eta bestean ura. Landareen erreinuan ura eta eguzkiaren berotasuna, bere berri- tzearekin edo joritasunarekin.

Gutxi dira ekainaren 23ko gau horretan purifikazioari eta sorginei dei egiten dien sua pizten ez duten herriak, eta Berastegi ez da solstizioko erritu horretatik kanpo geratzen.

Jaietako pregoi zaratatsu eta ezagunean eskola-umeak herriko soroetan ibiltzen ziren, eta etengabe jagole egoten diren txorimaloak batzen zituzten. Txorimaloak edo txori izutzeko mozturroak esaten zitzaizkien, eta San Juan bezperako suan erretzen ziren.

Horrela dio Elorrion entzuten zen abestiak, nik Buenos Airesen argitaratutako La Basconia aldizkarian, 1908ko ekaineko 531. zenbakian argitaratuta ikusi nuenak:

“San Juan, San Juan
Beti zaitut goguan...
Arrautza bi altzuan
Beste bi kolkuan.
Zapuak eta sorgiñak
Erre, erre
Gariyak ta artuak
Gorde, gorde
¡Ujuju, ujuju!”.

Baina alde batera utziko ditut jai profanoak, Berastegi ez baita izan eta orain ere ez baita jai bakarrik.

Parrokiaren inguruan egiten zen bizitzari buruz XVIII. mendeko kontratu bati esker jakin dut, elizako kabildoak eta serora batek idatzitakoa. Agiri luzea da, eta argitaratuta daukat. Urteak dira Lizarraga baserriko Juan Labayen Garayar-ek eman zidala; baina ez dut hemen erreproduzituko.

Berastegiko fabrika-mundua garrantzitsua izan da. Echeverría arotz baten lagun handia izan nintzen. Lana utzia zuen, baina bere lantokia, arotz-egia, kontu handiz eta maitasunez zaintzen zuen Félix Echeverría –horrela deitzen zen arotza–. Hainbat eskulan interesgarri ezagutu nituen, bestela betirako galduko zirenak.

1860an, Leitzaan, Iberoko burdinolako efektu eta tresnei buruzko inbentarioa egin zen. Arotz peritua Martín José Echeverría izan zen, Félixen aitona. Martín José Echeverría 1824an jaio zen Berastegiko Juangoenea etxean, eta herri horretan hil zen 1909an. Arotz horien zeregina izan zen Gipuzkoako Ibarra¹ herriko Azkue la Nueva edo Pertz-Ola burdinola zaintzea. Zuretik burdinera, arotzarengandik errementariarengana. Berastegin metalak lantzen ezagutu eta ikusi ditudan errementariak Francisco eta Gregorio Yeregui Arnalde dira, sutegia bide ondoan zutela, Yeregi-nea zeritzon etxepean. Urte batzuk lehenago, Berastegin Modesto Yaben-en arotz-egia ere bazegoen, gehiegi zehaztu nahi gabe aipatzearren. Etxeko industria horretan tamaina askotako

1. Nire eskuetan daukadan *Azkue La Nueva* burdinolari buruzko agirietatik.

aizkorak ere lantzen ziren, eta behi eta zaldien ferraketan ere aritzen ziren. Baina buelta nadin Yereguitarrengana. Berastegin bizi zen familia horretako lehena Nicolás Yeregui zen, al baitaria, eta lantzean behin ferratzaille edo perratzaille lanetan aritzen zena. Betelun jaio zen, eta errementari-erlojugeleen dinastia batekoa zen. Nahiko zabal aritu nintzen eurei buruz nire lanetako batean.

José Yereguik, aipatutako Francisco eta Gregorioren aitak, bere aroztegi-tailerraren ateak zabaltu zituen. Yeregi-nea etxearen atzeko fatxadari atxikitako teilape batean zuen potroa, geroago bere semeek ganadua ferratzeko erabili zutena. Esan dezadan ferraketa pausu garrantzitsua izan zela animalien errendimendurako, bai ekonomikoki, bai militarki; baina ez dugu iltze-ferraketaren erreferentzia zehatzik IX. mendearen² amaierara arte.

Berastegiko bizilagun batek, 1609an idatzitako testamentuan –zati txiki bat transkribatu dut– artisautzan burdina eta zura lantzearen arteko harremanaz hitz egiten digu. Arotz baten azken borondateaz ari da. Bertan, bizi den baserri-giroa deskribatzen duten zenbait aipamen egiten ditu, eta hainbat aldiz aipatzen ditu Nafarroaren mugakide den Berastegiko iraganean hain garrantzitsuak izan ziren burdinolak –burdina lantzen duten lantegiak–.

Testamento de Lope de Altamira, vezino de la tierra de Verastegui”³

Sepan quantos esta carta de testamento húltima y postrimera voluntad vieren, como yo Lope de Altamira maestro carpintero, vezino de esta tierra y huniberssidad de Verastegui, estando como al pressente estoy enfermo en cama, de enfermedad corporal, pero en mi seso, juicio y entendimiento natural, (...).

Primeramente encomiendo mi anima a Dios Nuestro Señor que la crio y redemio por su preçiosa sangre y el cuerpo a la tierra de la que fue formado, y quando su Dibina Majestad fuere servido de llebarme deste mundo, hordeno y mando, quiero y es mi boluntad que mi cuerpo sea sepultado en la iglesia parroquial de la villa de Leyça donde soy natural, en la sepultura donde se me señalare, dentro del cuerpo de ella. Y allí mando se me hagan mi entierro, nobeno día y cabo de año, en la forma que se acostumbra hazer a personas de mi calidad. Y para que se me de la dicha sepultura dentro del cuerpo de la dicha parroquial mando a ella un nobillo que ba en quatro años que anda en el busto de las bacas, que no están prendidas. Y es mi voluntad que los guesos [de mis padres] y antepassados se manden a la dicha sepultura asta el dicho mi cuerpo fuere enterrado en ella.

(...)

Yten, mando pagar mis deudas berdaderas y en especial a Joan Martín de Chapa ofiçial carpintero, nobenta y dos reales y medio menos treinta y seis ducados que le debo de jornales del tiempo que ha trabajado para mi en su offiçio de carpintería.

2. Lynn White (h) (1973): *Tecnología medieval y cambio social*, 74 or., Buenos Aires: Paidós.

3. Moldatu egin ditut zenbait ahots, errazaño ulertu eta irakurri daitezten.

Así bien mando pagar a Joanot de Beraça, oficial carpintero siete ducados y quatro ducados que le debo de jornales del tiempo que ha trabajado para mi en su offiçio de carpintero.

Así bien mando pagar a Joanes de (blanco) mi criado natural de Bera, diez ducados de el tiempo que ha trabajado conmigo.

Así bien mando pagar a Juanes de Sagastiberri de la Plaça, veçino de la dicha tierra, que está presente, veynte y siete reales de calçado que ha fecho para mi y mis criados.

Ansí bien mando pagar a Esteban de Yraçaçal, vecino de la dicha tierra que esta presente catorze ducados de resta del preçio de un macho que me dio, cuyo plazo se cumple por la Pascoa de Nacidad primera biniente.

Yten, digo que ay algunas deudillas que las sabe mi muger las quales mando se paguen de mis bienes.

Yten, digo que no me acuerdo el presente que deba más de lo que suso refiero, pero si acaso pareçiere alguno deziendo serle yo deudor mando que se le pague de mis bienes, conforme a derecho.

Yten, digo que agora me acuerdo deber a Juanes de Sorreguieta Ochotorena, veçino de la dicha tierra de Elduayen, veynte y quatro reales de mançana que me ha dado. Y a Martin de Yriarte, veçino de Berrobi, treinta y un reales de mançana que me ha dado (tachado).

(...)

Yten, digo que yo he trabajado con mis moços y ofiçiales en mi ofiçio de carpintero para Martin Arano de Beengoechea, ferrón en las ferrerías de Abillas (sic) en ellas algún tiempo. Y que el dicho Martin Arano tiene assentado en su libro lo que yo he de haber por mis trabajos y jornales y ofiçiales y moços y también lo que para ello me ha pagado. Quiero que se bea el dicho libro y se fenezca la quenta, y se cobre del y sus bienes lo que me resta debiendo eçeto dos ducados, los quales se lo suelto y dexo de graçia.

(...)

Ansí bien mando cobrar de Martin de Aldumçin, vecino de la Rentaría, y Joanes de Aldumçin su sobrino ferrón en Aldumçin, çinquenta días que me deben de obras fechas en las ferrerías de Arrambide por su mandado, los veynte y quatro ducados de las feneçidas cuentas, y los otros los veynte y seis de obras por feçeçer.

(...)

Ansí bien, mando cobrar de Ramus de Hesoyñ, vecino de la dicha tierra de Verastegui, ferrón al presente en la ferrería de Astibia, diez ducados de quantas feneçidas y más otras cantidades de quantas por feneçeçer, las quales se las dexo en su conciencia.

(...)

Yten, digo que yo debo a Lorenzo de Escolano çinco ducados de çierto paños que me enbió los quales se los mando pagar.

(...)

Yten, muestro por mis bienes los recibos soso expresados y ganados durante matrimonio de con la dicha mi muger, y más la dicha cassa de Alfaro con su perthenesçido y seis cabeças de yegoas mayores y menores y otras seis cabeças de bacas mayores y menores que todas ellas andan en los términos de la dicha villa de Leyça, y un macho negro con su basto y aparejos.

(...)

Y con tanto reboco y anulo y doy por ningunos y de ningun balor y he fecho todos y quales quier testamento, codiçillo o codiçillos que antes de este aya fecho así por escrito como de palabra y en otra cualquier manera los quales ni ninguno de ellos, quiero que no balgan sino este que al presente hago y hordeno; el qual quiero que balga por mi testamento, y por mi húltima y postrimera voluntad, y por tal lo otorgo en la forma de derecho más baledera en esta dicha tierra de Verastegui, dentro de la cassa de Alcaniz, a veynte y ocho días del mes de otubre de mili y seiscientos y nueve años,

(...)

Otograse en presencia de mi Domingo de Yriarte (rúbrica)⁴.



Berastegiko iraganari buruzko berriak / Juan Garmendia Larrañaga. – Non: Bilbao Bilbao, Begoña; Perez Urraza, Karmele; Perez Urraza, Kepa (argit.): *Paulo Iztueta Euskal Pentsamenduaren Eraikitzaile*. – Leioa : Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2007. – 398 or. : ir. ; 24 cm. – 197-202 orr. – Paulo Iztuetari eskainita.

4. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra / Archivo General de Guipúzcoa. Pt. 113, Fol., 251/254 vuelto.